

AHOTS BAT IRAGANEAN ITOTZEN ARI ZEN

AITOR-ASIER "GAUTXORI"

© Marjinalia Bilduma
© Aitor-Asier "Gautxori"
Itzulpena: Amaia Imaz
2006. urtea
Lege-gordailua: SS-859/06

AHOTS BAT IRAGANEAN ITOTZEN ARI ZEN

Ahots bat une ahaztu baten
iragan absurdoan itotzen ari zen.
Zer edo zer historikoa zegoen
porrot horretan guztian.
Banekien zenbat ez nekien,
eta iragandako denbora,
min egiten zuena.
Ordutik aurrera
hainbestetan amestu nuena
izan nintzen behin.
Eta uste nuen
leku hura
urrunegi zegoela,
eta rumba, Kubako melodia bihurtuta
heldzen ari zitzaidala.
Utziok hots arrotzak
toteltzeari,
eta urra ezak eguna,
eta sastakatu ezak behin betiko.
Hatzak txikituta ditut,
pentsamenduak bailiran
zintzilik dauden
haragiz eta azazkalez.
Nire arima orbandu gaixoak
uzkitik botatzen du
eguneroko egia, gizadi hilen lotsabidea,
eta minduta dut.
Hik, kolosal harro eta arrantzariak,
epaitu nazak hain gaituta bahago.
Eta utzidak esaten
“izorrai”.
Poesia masa fenomeno
bihurtzen dut nik.
Pentsamendua hain gutxi erabili dut,
distira egiten dit.
Eta zoroimen etxea
dut gitarran.
Hainbeste ikasi eta ezer ez ikasi,
dena etxean eduki
neukan arren...
Eguna iheskorra da iraunkortasunean.
Hitzak
bidegabekerien
besapean ezkutatuak
keinu bihurtzen ditut.
Eta amaren ezpainak sentitu ditut,
ama hilarenak,
milaka hitz azaleratzen.
Zentzuaren bila nabil

eta, aurkitu dudanerako,
Danteren ahotsa entzun dut
infernuan:
“Ni ere ez nintzen libratu azpikeria honetatik”.

Edertasuna bilatzea
azken itsasoa bilatzea da,
ezinezko Atlantida,
urrunean hil zen mendea,
giza basakerien
itsasoak zapalduta.
Gauaren ezpain lurrinduak
ulergaitz zabaltzen ari ziren,
eta musu arrastoa

zerien,
erlijio hain desiratuak
gutziz inoiz ezarri ez zuen
nerabe desira.

Doilorkumea,
beti bezala.
Bere baitan
amaitzen den esaldia.

Mesedez,
ez itzazue nire hitzak zuzendu.
Izan dut nahikoa zuzentzaile.

Orain,
ez baduzue axola,
ni neu izan nahi dut,
neure akats
maite
eta beharrezkoak barne.
Oroipenak hanka egingo du,
iragandako gizadiak,
egitateak berak,
eta ez dateke ezer jazo,
noizbait

iragaten ari zen
zerbait izan ginela
sentitu genuen
irudipen mehea izan ezik.
Hodeiak munduko pentsamendu
bizkor, ugaria dira.

Nik, zorioneko hausnarkariak,
nire sentipen izugarria aurpegiratu dut
eta, ozta-ozta,

Enterrari eta Insertari eta Re Págar ekin diet.
Aski da nire ahaleginarentzat.

Atzera begiratu
eta dena ilun ikusten da;
aurrera begiratu
eta dena berdin ikusten da.

Ezereza
amorratu, iheskor datorkigula
ikusten duten itsu zoriontsuak gara.
Ahotsak nire ezpainetako dardara eten du.
Haragitu egin den ezereza naiz.
Komun ontzi betiere mugiezina, garbia.
Izan ez naizen eta inoiz izango ez naizen hainbeste naiz.
Nire eskuak...
Aurpegiko haragia eskuez urratu dut,
nire buruaren bila.
Zuhaitz batek hitz egin du,
eta nik...
Leher egiten duten desirak. Besterik ez.
Batzuetan, bidea aurkitzen duk,
eta, orduan, ohartzen haiz
infinitura heldu haizela, hau da,
amaieraren zain egotea bakarrik falta da;
iritsi egingo da,
hago ziur.
Ezerezak gatibutasunaren muga gainditu du.
Sentimenduek hegaz egin dute, lotura hutsaletatik libre.
Edertasunez,
giza ahotsaz betetako metalezko hodia,
espazioa zeharkatu duena
mezu moduan.
Atzera! Bai, atzera itzuli nahi dut,
laztan zaharretara,
eta, berriro ere, maiteen
ahots hilak entzun.
Martxoko haizeak bultzatzen duen kometa naiz.
Irlandako oroipena naiz,
mendiko jabe.
Galdutako gudua naiz,
denbora hutsala,
neurrigabea.
Huts egindako musua naiz,
ezerez betea,
eromen unea.
Emadak eskua,
utzidak usaintzen,
mihiaz dastatzen.
Jauna, zuk sortu gintuzun;
aska gaitzazu gure betebeharretatik,
eta erakutsiguzu zure onberatasuna.
Jauna, ez zaitez izan hain gizatxarra...
Ez zaitez balia zure indarraz...
Jauna, zuk zaintzen duzu sua eta ura;
erruki, Jauna.
Jauna, zuk zaintzen duzu urrea eta zilarra;
erruki, Jauna.

Jauna, Zu zara ezereza eta gainerakoa;
 errukitu zaitez nitaz.
 Neu naiz, zure hilarri maitea.
 Ez al nauk gogoratzen?
 Hire nia naiz, hainbeste alditan,
 hainbestetan... Gehiegitan...
 Hire izena dut, hire abizenak,
 hire desohore berbera, hire irrika gaiztoa,
 hire ahotsa, hire urrikia...
 Ez al nauk gogoratzen? Ni izan hintzen hainbestetan...
 Orain, azkenetan nago, hemen, Pasaian...
 Hainbestetako nire putetxe maitean.
 Begiek dar-dar egiten didate.
 Bidegabekeria dardara.
 Biktimaren
 ahots alaia, uste onekoa.
 Larruak gaueko eguna urratu du.
 Beste bat naiz.
 Ni da.
 Nire gorputzaren soinuan dantzatzen naiz,
 eta akorde uhin batek egunero bustitzen nau.
 Leku bat, orrialde baten ostertzean galdua.
 Letra inprimatuak liluratu egiten nau
 –hainbeste gezur, baina ez du minik egiten–.
 Nire letretako estepa bikaina,
 eta basatiaren eraso dudatsua,
 eta animalia basaren atzapar zitala.
 Denbora pasatzen da kadentziaz beteta,
 betiere ezezaguna izango zaidan esanahiko hitzez.
 Denboraren poeta naiz, eta sentimenduarena, eta ahanzturarena, eta...
 Marokon, nekazari lanetan kantatzen duen neskatila naiz.
 Amerika, erantzuidazu!
 Eta odola “-rantz” irekitako mila mailatan isuri da.
 Hain gutxi dut esateko,
 ez dakit zer isildu lehenengo...
 Ilargi minotauroak
 sorgor egiten du distira
 nire existentzia bipilaren mila eta koskagarren eguneko zero ilunean.
 Bilakaera behatzen duzuen emakume eta gizon.
 Eta irudikatutako gailurrean...
 Dena uste baino are okerragoa da.
 Mundua zabortege itzela da.
 Gure oligarken petrolio orbanek
 geldiezin egiten dute aurrera,
 eta euren errepide okagarriek,
 eta euren amianto eta sufrimendu fabrika zikinek.
 Oi, natura ahaztua!
 Ahots kordak ditut!
 Nire beharren garaipena da hau.
 Putakume malapartatua!

Zenbat, zenbat aldiz errepikatu behar diat,
jakitun egin hadin.
Ke lurrunkorra astun erortzen da,
eta zuloa irekitzen du,
eta nire giza beharrak bertatik pasatzen dira.
Haragiaren hazia ernatu egiten ari da,
gehiagizko harrotasunez,
eta gero, hautsa hautsa baino ez denean,
eta besteak izandakoa baino ez izatean,
gure guraso hilak,
hilobirik gabe, hondarrik gabe.
Espazioan zeharo aldatuta.
Nire sentimenduak kanoi bala jaurti du,
eta aire ez-beharrezkoa, beztitua urratu du.
Zorionez barre dagi.
Nire hildakoak nire haragia dira, nire pentsamendua eta nire argia.
Haragi zaurtua,
bortxaketa eta haurtzaro harresitua transumatzen duen mundu hau.
Ikasbideak eman behar al dizkidazue?
Bai, horixe!
Hainbeste min ikusi eta partekatu dut,
bihotz argia dut,
eta sentimendua, azkenetan.
Gure ametsez harago,
heriotzak bitan banatutako ozeanoa.
Hainbestetan itzuli naiz...
Eta nire ideia ilunen arrainontzian
ezin aitortuzko formak aurkitu ditut.
Eta, gainera,
orain ez dut amaierarik,
ez hasierarik.
Asko jota, atsedenaldia,
amaigabea dena,
ez duelako ez hasierarik eta ez bukaerarik.
Ate itxiak dira gainerakoak.
Inoiz ere ez iristeko,
hortzez egindako distantzia maite dut.
Bihotzeko laguna,
nigan sentimendu joanak, hilak, lurperatuak
pizten dituana.
Bai, hau ez da ez amaiera, ez hasiera,
eta inoiz gehiago ez naiz izango isiltasunaren beldur.
Nire ahotsa naiz, egun amaigabe baten gainbeherarantz proiektatuta.
Eta izarrak iheskor egiten du dir-dir, amaigabe, Pasaia gainean.
Eta nire gaztaro suhar eta zapuztuko putatxoa naiz,
nire kasualitateena.
Hainbeste negar egin dut,
ezertarako ez,
hatzak gogortuta ditut.
Nire bizitzako

jaiak dira gaur.
Zorionekoa ni.
Auzoak eta zimenduek
ona den zerbait iragartzen dute.
Eta haurtzaroa, urrun,
triki-traka ezinezkoa,
irrealtasunen burdinbideko transumatzea.
Hainbestetan nahi izan dut,
eta sinetsi dut,
itzultzea,
eta joaten besterik ez nintzen ari...
Nire ilusioen kartzelak
leher egin du,
eta lizunkeriak beti izan zuen
kalerik, zenbakirik
eta tokirik nire gaiztakerian.
Datuz beteta dagoen baina,
nire programa asmatu egin ez delako,
zabaltzen ezinezkoa den CD ROMa naiz.
Neskatilak kalean gora eta behera dabilta,
sentsualtasunez eta ezjakintasunez gabetuta.
Galtzadako harriak loreak dira, eta grazia hazi
eta barreiatu egiten da bertan.
Dorre garaiak,
une historiko batera baztertutako gazteluak;
inork ez du jada –zorionez– haren berri.
Nire begiek nire azken lekua izango dena
miretsi dute azkeneko aldiz.
Gitarrak izatearen tristura zarrastatu du,
atzerakada, agurrik gabe
meatzean barneratzen den meatzariarena.
Hodeiak moteltasun izoztuz iragaten dira,
eta erraiak aholku barreiatu bihurtu dira.
Neskatoa oldarren soinuan dantzatzen ari da,
eta udako beroak desira islatzen du haren haragi biluzian.
Edan egin dut, gainezka,
eta ordulariak irakurtzen ezinezkoa den ordua adierazten du.
Eta hainbestetan naiz, ezin dut nire burua zenbatu.
Eta, hainbeste erabili ditut hiri negar egiteko, nire begiek lurrera egin dute,
oi, gizadia!
Intimitate hutsa behar da gauza batzuetarako.
Aldatzen den dena
NEU NAIZ.
Eraldaketarantz mugitzen den dena
ni izatea nahi dut.
A, ahaztu egin dut ia:
Hirugarren Mundu Gerra piztu berri da
(eta, espero dut, azkenekoa,
ontasunagatik edo adimenagatik ez bada ere).